

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BASTIDAKO UDALA

#### **Bastidako (Araba) Herrigune Historiko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 7. aldaketa puntualaren hasierako onespena**

Interesa izan dezakeen orori jakinarazten zaio udal honek, Alkatetzaren 2021eko azaroaren 5eko 547/2021 Dekretuaren bidez, erabaki duela hasierako onespena ematea Bastidako (Araba) Herrigune Historiko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 7. aldaketa puntualari, hain zuzen, M etxadiko 7 lurzatirako (15 poligonoko 76 katastro lurzatia). Aipatutako aldaketarekin Bastidako 15. poligonoko 76 katastro lurzatia zatitu nahi da, azpiko jabetza egituraren arabera, BIPBren zuzeneko jarduketako bi eraikuntza unitate eratzeko, hiri jabetzaren estatutu edo araubide juridiko desberdinarekin, udal honetako zerbitzu teknikoek 2021eko otsailean idatzitako aurre-proiektuaren arabera.

Espedientea jendaurrean jarriko da, hogeitun egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den unetik aurrera. Egun horietan, espedientea aztertu ahal izango da, bai eta egokitzen jotzen diren alegazioak aurkeztu ere.

Bastida, 2021eko azaroaren 5a

*Alkatea*

*LAURA PÉREZ BORINAGA*